




BETERRIKO ALDIZKARIA



AIURRI

1996ko apirilaren 12a. 34. zenbakia. Dohain banatzen da.

ZUZENBIDE
FAKULTATEA



FACULTAD DE
DERECHO

Euskal Jatorri
EUSKAL HERRIRA

UNIBERTSITATERA

**Oraindik AIURRI
aldizkaria
etxean jasotzen
ez baduzu zeren
zain zaude?!**

Deitu telefono honetara



30 07 32

1. **AURKIBIDEA.**
AIURRITARRAK
Joxin Azkue: "Eroak zein? Behiak ala gu?"
2. **GALDEZKA.**
Eta zuk, erabiltzen al dituzu ordenagailuak?
3. **ADUNA.**
Auzoak eta industria guneak izendatu dituzte.
- 4-5-6. **ANDOAIN.**
Zabor bilketa.
Karrikako Tipi-Txokoa.
Eskulanean azoka.
7. **ASTEASU.**
Boleibol taldea.
- 8-9. **BILLABONA - AMASA.**
Jai batzordea.
Langabetuentzako ikastaroak.
10. **ZIZURKIL.**
Txintxur astialdiko taldea.
11. **ENPRESA.**
Artelatz: ingurugiro heziketa.
- 12-13. **ERREPORTAIA.**
Unibertsitatera.
- 14-15. **ELKARRIZKETA.**
Martin Ugalde andoaindarrari elkarrizketa.
- 16-17. **KULTURA.**
Gipuzkoako XVI. mendeko grisalla bakarra.
18. **ERRETRATU ZAHARRA.**
19. **ZER BERRI? / LEHIAKETA.**
20. **AGENDA**

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31
Babesleak: Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Antxiñe Mendizabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia.
Erredakzioa: Antxiñe Mendizabal eta Ainhoa Oartzabal
Argazkiak: Manu Mujika **Komikia:** Iñaki G. Erro
Publizitate arduraduna: Fernanda Irazu **Banaketa arduraduna:** Iñosen Mujika. **Administratzaile-eragilea:** Xabier Irisarri. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). **Filmaketa:** VideoCys, Donostia. **Legesgordailua:** SS-202/94 ISSN: 1134-0614
Tirada: 3.500 ale.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



EROAK ZEIN? BEHIAK ALA GU?



JOXIN AZKUE

Egia esan, eta erabat sendatu gabeko urdai-laren aspaldiko gaitz baten jabe izan arren, ez diot buelta gehiegi eman sekula nire dietari, ahotik sartzen nuen elikaduraren konposizio-kalitateari, alderantziz baizik. Ez ordea zapore-kalitateari. Beraien aurka ezertxo ere ez badut ere, gehiago kokatuko nuke nire burua Pantxikane edo Iriarteko menu baten barruan gaur hain modakoa diren dieta makrobiotiko horietako batean baino.

Baina gauzak hobeto pentsatu beharrekoak dira. Izan ere, azken urte hauetan pilatzen ari zaizkigu tipo guztietako elikadura-gaitzak. Hor dugu sekula santan argituko ez den koltza olioaren kutsadura lotsagarria, edota arrautzen ditxosozko salmonela.

Lasai egoteko esaten digute, guk ez dugula arriskurik. Baina jode, hi! Britania Handitik datozen herriak ez dira, ez txantxetakoak, "dieta garbi eta orekatuekiko" eszeptikoena ere kezkatzeko hainbaterakoak baizik. Ni bizi naizen Zizurkil nekazal honetan oso inpaktantea da gaia, eta ez da gutxigorako, bertako baserriarren bizimodua eta kultura bera ere markatu duen abelgorria baita eztabaidagai.

Ez dakit zenbat milioi behi ingeles akabatu beharko omen dituzte *abelgorrien encefalitis espongi-formea* deituriko sendabiderik gabeko gaitzarengatik. Izen arraroa eta kalte handiak. Espongi-formea izena burmuina esponja bat bezainbat zulatua uzten duen birusa delako omen.

Gure baserriarrek "jakintzak kanpoalde hortan zer zerrikeria ematen dien ganaduari gizentzeko" esaten zuten betidanik. Eta arrazoi izan! Itxura denez, ahari eta ardiki hezurrekin eta barrunbeekin egindako pentsuak lirateke egoeraren errudun. Erresuma Batuko ia abelgorri guztiak ardiaren hezur eta haragi zuten osagarri proteinikoekin haziak omen dira. Baina norbaitek zioen bezala, abelgorriek ez dute ardiki hezurrik jaten, ezta ematen zaien pentsurik sortu ere. Beraiek, bakean utziz gero, larrean ibiltzen dira lasai asko.

Non dago, orduan arazoa? Ba, EHNEk dioen bezala, produkzioaren gehiegizko industrializazioaren ondorioan. Pentsuen produkzioan animalietatik eratorritako irinak erabiltzearen arriskua jakina omen zen, eta administrazioaren atean aldaba jota omen zegoen, baina beste hamaika kasutan bezala, alfer-alferrik.

Gure baserriarrek beste produkzio sistema bat aldarrikatzen ari dira. Bertako haragiaren alde apustua egiten dutenean, *haragiaren enskal labelaren* aldarrikapena ia itenbide bakarra izan daitekeen bidea eta gure elikaduaren kalitatea bermatuko eta ziurtako duen produkzio sistema bat defendatu nahi da. Baina ganadua hazteko era hau ez dator bat hipermerkatu handiek et hamburgeria kate erraldoi horiek daramaten estrategia kontsumistarekin, eta beraz, gure baserriarren etorkizuna gero eta zailagoa bihurtuko da.

Administrazioak eta haragi-merkatua kontrolatzen duten enpresa handi horiek buelta emango diote laster asko egoceri, itxuraz behintzat. Haragiaren kalitatea *ofizialki* bermatuko zaigu, birusak eta antzekorik ez duela ziurtatuko zaigu... hurrengo kutsadura arte. Norena hurrengo txanda? Esnearena? Ogiarena? Behi eroak? Ke ba! Egoera hau onartzen dugunok gara eroak! Gu geu!



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jasotzen du.



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuaren laguntza jasotzen du.

ETA ZUK, ERABILTZEN AL DITUZU ORDENAGAILUAK?

Gutxi izango dira, honez gero, gure artean ordenagailua aipatzen entzun ez dutenak. Hala ere, eta lantokietan nahiz etxe askotan azkenengo hamarkadan asko zabaldu diren arren, oraindik ere askok eta askok ez dute beren funtziona-

mendua ezagutzen, eta zertarako balio duten galdetzen dutenak ere badaude. Gazteen artean berriz, ez dago halako zalantzarik: oso gaztetatik hasten dira eskolan ordenagailuak ezagutzen eta erabiltzen.



Ainara Treku, **ikaslea. Larraul.**

Eskolan erabiltzen ditut. Lana errazten dute, baina konplikatu samarrrak dira: ordenagailua ondo erabiltzen ikasi behar da. Etxean edukitzea gustatuko litzaideke; merezi du. Aurrerapen handia da, eta etorkizunean behar-beharrezkoak izango ditugu.



Ander Zabaleta, **ikaslea. Billabona.**

Ordenadoreetaz zerbait badakit. Eskolan baditugu, eta lana errazten dute. Ordenagailuekin jolastea ere gustatzen zait. Etxean ez daukat, baina nere lagunek badute. Hala ere, ez ditugu erabiltzen.



Nora Carrillo, **ikaslea. Zizurkil.**

Eskolan erabiltzen ditut, idazteko batez ere. Gustatzen zaizkit, eta bertako jolasetan ere aritzen naiz. Etxean badaukat, baina ez dut erabiltzen, ez dut ohiturarik. Lan bat egiteko baka-rik erabiltzen dut.



Leire Martínez, **ikaslea. Andoain.**

Ez, ez naiz ordenagailuekin ibiltzen; eskolan oraindik ez gara hasi, baina aurki hasiko gara ikasten. Ez dakit gustoko izango dudana, ez dut halakorik inoiz probatu. Badaukat ikasteko gogoia.



Josune Otegi, **ikaslea. Asteasu.**

Astean ordubetez erabiltzen ditugu eskolan: denbora gutxi. Ondo moldatzen naiz ordenagailuekin, lana errazago egiten dut. Administrari ikasketak egiten ari naiz, eta gure lanbidean asko erabiltzen dira. Etxean ordenagailu bat daukat, eta eskolako lanak egiteko erabiltzen dut.



Roberto Diéguez, **langilea. Andoain.**

Nik ez dut erabiltzen; langile soila naiz, baina bulegoetan erabiltzen dute. Lanetik kanpo pixka bat ibili naiz, jolasekin, gehienbat. Gainerakoan, ez dakit ordenagailuak erabiltzen. Baina, beharbada, egunen batean ikasiko dut.

AMAIUR

KALE NAGUSIA, 24 - 69 16 11
BILLABONA

✓ OPARIAK

✓ JANTZIAK

✓ LURRINDEGI

✓ OSAGAIK

✓ BITXITEGIA



HERCULES

Aseguruak ARGENTARIA


Amara Kortaizarena

Bulandegi bidea, 6 - Telf. eta Faxe 69 37 34

ZIZURKIL

AUZOAK ETA INDUSTRIA GUNEAK IZENDATU DITUZTE

Goiburu, Elbarrena, Lardi, Belen, Bulandegi, Ibaiondo, Uparan, Haizpea, Urtaki eta Zubitxiki



N-1 GOIBURU

- | | |
|-------------------------|-----------------|
| 1. ETXENAGUSA | 17. ETXE ALA |
| 2. EGUZQUI JORE | 18. UZAN BERRIO |
| 3. AITARI BSKER | 19. AIZARTE |
| 4. TABALA BAIKARDOTEA | 20. ZABALE |
| 5. IBARRAGARTZA | 21. IAU HAZETA |
| 6. EGUZQUIZA | 22. IZORRE |
| 7. ABULBUZA ENFA | 23. AGERRE |
| 8. ABULBUZA BAIKARDOTEA | 24. PAGOAGA |
| 9. OIATZA | 25. UDARRIS |
| 10. ZUHARTZE | 26. AITANDIA |

N-2 ELBARRENA

- | | |
|----------------------|-------------------|
| 1. ETXEBERR | 17. ANDRETSIS |
| 2. IGARITZA | 18. HAIZA |
| 3. GURE NIARNA | 19. IRALARRE |
| 4. GARNITZ TXIKI | 20. IGARRECI BERR |
| 5. GURE ANIETSA | 21. IGARRECI |
| 6. KANJO | 22. IGARRAIZA |
| 7. ERNATA | 23. MENTZEA |
| 8. ARZAGA | 24. ARTIOLA BERR |
| 9. BAKE | 25. URTAKI |
| 10. IGARITZA BENEKOA | 26. AITARENUTZAKA |
| 11. HAIZPEA | 27. ARANITZEA |
| 12. IONIALA | 28. ANUJONDO |
| 13. IERU EDER | 29. BULANDEGI |
| 14. IZARTEKO MAITEA | 30. BENA |
| 15. OLAZABA | 31. IBEROPOA |
| 16. ANDRETSIS ZAHAR | |

N-3 LARDI HAUZOA

- | | |
|---------------|----------------|
| 1. OZNE | 5. LARDI ONDO |
| 2. OZNE TXIKI | 6. LARDI TXIKI |
| 3. LARDI | 7. BOKARTE |
| 4. LARDI BERR | |

H-1 HIRIGUNEA

- | | |
|-----|-------------------------|
| 1-1 | BELEN INDUSTRIGUNEA |
| 1-2 | BULANDEGI INDUSTRIGUNEA |
| 1-3 | IBAIONDO INDUSTRIGUNEA |
| 1-4 | UPARAN INDUSTRIGUNEA |
| 1-5 | HAIZPEA INDUSTRIGUNEA |
| 1-6 | URTAKI INDUSTRIGUNEA |
| 1-7 | ZUBITXIKI INDUSTRIGUNEA |

Adunako hirigunetik kanpo dauden hiru auzoei izenak eta bertako etxebizitzeei zenbaki bana jarri die Udalak. Era berean, pabiloi industrialei zenbakiak jarri ondoren, zazpi industria gune ezberdinetan bildu dituzte. Pabiloi ugari ari dira azken aldian eraikitzen, eta neurri horrekin, enpresen kokagunea zehaztea eta postariari lana erraztea lortu nahi da.

Herriko hirigunetik gora dauden hogeitazetxe bidez, Goiburu auzoa osatzen dute. Elbarrena auzoa berriz, hirigunetik behera dauden etxebizitzek; hogeita hamaika etxek, alegia. Andoainerako bidean dauden zazpi baserriak, Lardi izeneko auzoan bildu dituzte. Industria guneak aldiz, zazpi dira, eta bakoitzean, lantegi ugari dago. Zizurkildik Andoainerako bidean dauden industria guneak honela izendatu dituzte: Belen, Bulandegi, Ibaiondo, Uparan, Haizpea, Urtaki eta Zubitxiki.

Auzoei nahiz industriguneei jarri dizkieten izenak, leku horien aspaldiko izenak, toponimoak edota inguruko mendien izenak dira.

Seinaleak jarriko dituzte

Auzoak eta gehienbat industria guneak non dauden argi ikusteko, seinaleak jarriko dituzte errepidearen alboetan. Seinaleetan industria guneak izendatuko dira, bakoitzean dauden enpresak zehaztuz. Enpresa bakoitzaren zenbakia ere jarriko dute seinale horietan.

ZABOR BILKETA

M. Zinkunegi: "Ezinbestekoa da herritarren kontzientzia eta partehartzea"

Udalak zaborren bilketa eta tratamendua arautzen duen ordenantza onartu du. Aurrerantzean arauak bete ezean, 1.000-100.000 pezeta bitarteko isunak ezarriko dira. Zerbitzu batzordeburu den Maxen Zinkunegiren esanetan, herritarren kontzientzia eta partehartzea gabe, ordenantzak ez du inongo baliorik.

Etxeko zaborrari dagokienez, hauek dira ezinbestean bete beharreko arauak: zaborrak boltsa egokietan, eta ongi itxita sartu behar dira dagozkien kontenedoreetan, kanpoan utzi gabe; debekatuta dago arratsaldeko 19.00ak baino lehen boltsak ontzietan uztea; hala nola debekatuta dago larunbat ilunabarrean zaborra etxetik jaitea. Dendei dagokienez, arau bereziak ezarri dira: dendariak debekatuta daukate 20.00ak baino lehen zaborra botatzea. Debekatuta dago etxeko zabor arruntarekin batera gai toxikoak, lur hondakinak, neumatikokoak, pinturak, altzari zaharrak, animalia hilak eta abar nahastea.

Lur hondakinei dagokienez, Udalak berak ezarriko ditu, kantitatearen arabera lur hondakinak botatzeko ontzi bereziak. Kantitate jakin batetik gora ontzi bereziak jartzeko baimena eskatuko da udal-txean, fidantza ordainduz.

Altzari eta traste zaharrak

Altzari eta traste zaharrak biltzeko zerbitzu berezia ezarri du Udalak. Asteartero andoaindarrek traste zaharrak kalera ateratzeko modua izango dute, beti ere gaueko 22.00ak ondoren. Ez dira ametitzen jasotzeko garabia behar duten altzari edo trasteak.


Gaur egun zaborra botatzeko hiru kontenedore mota daude herrian: ohiko zaborra jasotzen dutenez gain, papera eta beira jasotzen dutenak. Paperari dagokionez, debekatuta dago kontenedoreen ondoan uztea: "Dendariei egin nahi diet, batez ere, dei berezia -dio Maxen Zinkunegik-, badakit kontenedoreak, beharbada, kartoizko kaxa handiak sartzeko oso erosoak ez direla, baina kartoia puskatu eta ontzietan behar bezala sartzeko obitura hartu behar dugu". Zinegotziak adierazi digunez, herrian beira papera baino hobeto ari da jasotzen: "Ziur aski, etxetan obiko zaborraren eta paperaren artean bereizketa egiten ez delako".

Aurki kontenedore berri gehiago izango dira herrian. Udala gune batzuetan nahikoa gutxi daudela konturatu baita, hondatuak konpontzen hasiko delarik: "Hala ere, alferrik da berriak ekartzea, jendeak kontenedoreei su ematen jarraitzen badie".

Pilak berriz, erabili ondoren, saltzen dituzten dendak berezietara eramane behar dira. Oso kutsagarriak direnez, ez da batera egokia ohiko zaborrarekin batera nahastea.

Isunak

Ordenantza onartu izanak isunak dakartza ondorioz, "eta benetan ezarriko dira", azpimarratu digu M. Zinkunegik. Isunak 1.000-100.000 pezeta bitartekoak izango dira. Arau-hauste arina da, esate baterako, zaborra kontenedorearen kanpoan uztea: larria da berriz, altzariak behar ez diren egun eta orduetan jartzea; eta oso larritzat jotzen da zaborra behar ez den tokian uztea.



Zaborra araututako orduan atera behar da

ALFARO
J A T E T X E A
EGUNEROKO MENUA
Etxeberrieta auzunea
☎ 59 40 27 **ANDOAIN**

XIXORI
BELARDENDA
DIETETIKA ZENTRUA
KONTSULTA NATURISTA
Ondarreta, 9 - TELF. 59 01 99 - 20140 **ANDOAIN**

KARRIKAKO TIPI-TXOKOA

Haurren jolasleku; gaztetxoan bilgune

1990. urtean sortu zen Karrika auzoko ludoteka Zikulusaltsa taldearen ekimenez. Gaur egun ia ehun bazkide dauzka ludotekak, eta egunero hutsik egin gabe joaten diren haur eta gaztetxoak asko dira.

Bostetatik zortziak arte dago ludoteka irekita, orduero adin ezberdinetako haurrak joaten direlarik. Ludoteka haurren jolasleku da batetik, eta gaztetxoan elkargune bestetik. Ane Amondarain eta Karmele Albeniz begiraleek adierazi digutenez, haurrak nahiz gurasoak oso pozik daude ludotekako iharduerarekin.

Ludotekak bi helburu nagusi ditu: haurren denbora libre betetzea, eta bide batez, jolasen bitartez cuskara bultzatzea. *"Ludotekara etorritz baurrek ez diote kalean jolasteari uzten -azaldu digute-, baina beren heziketa prozesuan balore garrantzitsuak barneratzeko aukera daukate hemen: elkarlana, alkartasuna eta abar".* Karrikan bestalde, euskarak ez du haurren artean presentzia handirik, eta ludotekaren bitartez hutsune hori betetzen saiatzen dira.

Haur asko bakarrik

Jolasak, jokoak, liburuak, lagunartea eta beste hainbat aukera eskaintzen ditu ludotekak. Haurrak eta gazteak bertan beren kasa aritu daitezke, edota begiraleek prestatzen dituzten ekintzei jarraitzen diete, beti ere aukerara utziz. Begiraleek diotenez, azkenengo hamarkadan haurren aisialdia eta jolasak asko aldatu dira: *"Gero eta haur bakar gebiago dago, eta haurrak lanpetuago daude. Horregatik,*



Haurren jostaleku paregabea

ludotekak lagunartea eta jolasa eskaintzen die: -azaldu digute- haur eta gaztetxoan heziketan ezinbestekoak".

Andoainean dagoen ludoteka bakarra da Karrikako Tipi-Txokoa. Hasiera batean, Karrikakoak ez ziren haurrak ere hurbiltzen ziren bertara, baina poliki-poliki auzokoak bakarrik geratu dira.



JUAN JOXE PETRIKORENA ATXILOTU DUTE Udalak ez zuen HBren mozioa onartu

Hilaren lehenean goizaldeko hiruetan atxilotu zuen Ertzaintzak Juan Joxe Petrikorena udal zinegotzia Donostia komandoaren laguntzaile izateaz akusatua, Garzon epailearen aginduz, bi orduz etxea miatzen aritu ondoren. Ertzaintzak, epailearen onespena jaso ondoren, inkomunikazio epea hiru egunetik bost egunera luzatu zuen.

Biharamunean ez-ohiko udal batzarraldia izan zen. HBk J.J. Petrikorenaren atxiloketa gogor salatzeaz gain, Udalak atxilotuaren giza eskubideak errespetatu zitezen ardura har zezan eskatzen zuen mozioa aurkeztu zuen. Gainera, Madrileria eraman izanez gero, senideen garraio gastuak Udalak beregain har zitzan eskatzen zitzaion Udalari. J.A. Pérez Gabarain alkateak Petrikorena non zegoen jakiteko Ertzaintzarekin harremanetan jarri zela adierazi zuen, eta Garzonaren aginduz inkomunikatuta zegoela beste erantzunik ez omen zuen jaso. HBk izan

ezik, alderdi politiko guztiek ezezkoa eman zioten mozioari. Zenbait herritarrek gogor iraintzen zituztela irten ziren zinegotziak aretotik.

Ondorengo prentsaurrean HBk gogor salatu zuen Udalaren jarrera eta Petrikorenaren egoeraz kezkatuta agertu ziren: *"Egin ditugun eskakizunak gutxienekoak dira, eta ezezkoaren ondoren Petri babesik gabe gelditu da".* Ertzaintzak nahiz Goardia Zibilak orain dela hilabete herrian egindako miaketan eta kontrolaren ondorioztat jo dute atxilotura.

edergai



Arteta kalea z/g
Tel. 59 34 53
ANDOAIN



**MARKOAK
eta
ESKULANAK**

150 LAGUN INGURU DANTZAN

Gizonezko bat ere ez

Urki eta Triana dantza taldeak eskaintzen ari diren ikastaroetan 150 andoaindar inguru ari dira egun hauetan parte hartzen; aipatzekoa da gizonezko bat bera ere ez dagoela bikote dantzetan emakumezkoa lagunduko duenik. Emakumeak beraiek moldatzen dira beraz, bi roll-ak betetzen.



Triana dantza taldea orain dela bost urte sortu zen, handik hiru urtetara elkarteak eratu zuten. Bazkideei zerbait eskaini behar zitzaizela eta *sevillana* ikastaro bat eskaintzea pentsatu zuten. Ikastaroak izugarriko arrakasta izan zuen, eta jarraian modan dauden saloi dantzak erakustea pentsatu zuten.

Otsailaz geroztik 80 emakume inguru ari dira *salsa*, *merengea*, *cha-cha-cha*, *rock and rolla* eta beste dantza batzuk ikasten. Aurki ekingo diete, hala ere, berriro *sevillanei*. Ines Ferro elkartekidearen esanetan, ikastaroa errepikatzeko eskaria egin baitiote taldeari.

Urki dantza taldeko Begoña Igartua eta Ramon Izetaren zuzendaritzapean adin guztietako 50 emakume inguru ari dira plazako euskal dantzak ikasten: arin-arina, fanlangoa, San Juan dantza eta beste batzuk. Frontoi azpiko lokalean egiten dituzte entseñuak. Abenduan hasi ziren, eta Santa Kruzteko erromerietarako prest egotea espero dute.

ESKULAN AZOKA

Tapizak, lanparak eta koadroak, besteak beste

Apilean elkarteak apirilaren 22tik 26era eskulan erakusketa eskainiko du Kultur Etxean. Zortzi pertsona ari dira gaur egun lan egiten, eta bi irakasle eskola ematen. Erakusketa eta gero, herritarrengandik eskari ugari jasotzea espero dute, eta ekainera bitartean etengabe lanean jarraitzea.



Apirilaren 22-26 egongo dira eskulanak ikusgai

Tapizak, hiru dimentsioko koadroak, lanparak, eskaio-lazko irudiak, etxe txikiak, kuxinak eta beste hainbeste eskulan egin dituzte azkenengo hilabeteetan. Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntzen ondorioz sortu dute tailerra. Gipuzkoako bakarra, eta zazpi andoaindarrez gain, Hernaniko beste gazte bat ere parte hartzen ari da.

Udalak oraindik ez die lokalean sartzeko agindutako ranpa jarri, eta hori dela eta, gurpildun eserlekuetan dabilten bizpahiru gaztek ezin dute ikastaroan parte hartu.

Eskulanaz gain, matematika, lengua eta informatika lan-tzen dute bi irakasleren laguntzaz.

Gaur egun kezkatu samar daude udaletxetik lekuz aldatuko dituzten zurrumuruak iritsi zaizkielako; nonbait, musika eskolako ikasleak bertara eramane nahi dituzte hezetasuna dela eta, eta beraiek hara eramane edota Etxeberrietara lekuz aldatu. Hala ere lokala Eusko Jaurlaritzarena da, eta halako erabakirik ez hartzea espero dute Apileakoek.



BOLEIBOL TALDEA

Nekane Txapartegi: "Urte honetan taldea sendotzen aritu gara"

Zazpi neskek osatzen dute Asteasuko boleibol taldea. Jubenil mailako ekipoa da, eta Pello Errota ikastetxearen izena darimate. Hamasei urte inguruko neska hauek kirola egiten ondo pasatzeaz gain, nahikoa urduri jartzen dira partiduetan. Taldean neska gehiago izatea nahi dute, partidu batean batek baino gehiagok min hartuz gero, ordezkorik gabe gelditzen baitira. Herriko nahiz inguruetakoko neskek animatzen dituzte ekipoa sartzera.



Jende gehiago behar dute

Iaz kadete mailako ekipoa ziren, eta adina dela eta, jubenil mailakoa osatu behar izan dute aurten: *"Erdiek kadete mailan jokatze-ko adina dute baina jubeniletan joka dezakete; alderantziz ordea, ezinezkoa da. Horregatik erabaki genuen jubeniletako ekipoa osatzea"*, adierazi digu Nekane Txapartegi entrenatzaileak. Esan bezala, Pello Errota ikastetxearen izenean jokatzen dute, eta ikastetxeak entrenatzeko lekua eta materiala uzten die. "Bixkiak" tabernak herriz, jantziak ordaindu dizkie. *"Udalak dirulaguntza ematea espero dugu"*

adierazi digu Nekane. *"herriko taldeei dirulaguntza emateko proposamena aurkeztekotan da, behinik behin"*.

Urte honetako lana ekipoa finkatzea izan dela esan digu Nekane. Neskak ikastetxe ezberdinetan ikasitakoak dira, eta beraz, ez zuten modu berean jokatzen boleibolean. *"Txikitatik batera jokatzen ari diren jokalariek, gutx oraindik ez dugun erritmo eta dinamikan jokatzen dute"*, adierazi digu entrenatzaileak, baina urte honetan zehar taldeko lana asko hobetu dutela gaineratu du.

Azken fasea jokatzen ari dira

Boleiboleko beste ekipoen antzeko maila dutela diote jokalariek eta partiduak irabazteko asmoa dute. Orain Gipuzkoako txapelketarako azken fasea jokatzen ari dira, eta maiatzean bukatuko dute. Txapelketan jokatu ahal izateko partiduak irabazten ez badituzte, *Torneo de Primavera* delakoan hartuko lukete parte.

Horretarako astean hiru aldiz entrenatzen dute, baina entrenametuak gogorrak ez direla esan digute: *"Beroketa ariketa batzuk egiten ditugu, eta ondoren, paseak, erremateak eta antzeko gauzak lantzen ditugu"*. Helburua ondo pasatzea eta hobeto jokatzea dutela azaldu digute.

Antolaketa eskasa

Partiduen antolaketa txarra dela diote. Gainera, federazioak ganora gutxi duela, eta beraiekin duen harremana urria dela esan digute: *"Dutela gutxi jakin genuen azken fasea jokatzen ari ginela"*.

Bestalde, herritar eta guraso ugari joaten dira partiduak ikustera: *"Askotan eurek eramaten gaituzte kotxez beste herrietara. Garratxo da egun dugun arazoetako bat"*.

BOLEIBOLEKO JOKALARIAK

- NOELIA PEREZ
- MAIDER DEL VALLE
- MAITE MILLAN
- ANABEL MARQUIZ
- KRISTINA BARRIOLA
- DABINIA PEREZ
- NEREA SANCHEZ



LANBIDE EZBERDINEN ARTEKO KOORDINAKETAK

GASA ETA BEROGINTZA

KALE NAGUSIA, 59 - ☎ 59 38 44
ANDOAIN

- ITURGINTZA
- GASA
- BEROGAILUAK
- ELEKTRIZITATEA
- IGELTSARITZA

SOTO
elektrizitatea

- ELEKTROGAILUAK
- MATERIAL ELEKTRIKOAK


Santiago kalea z.g BILLABONA
☎ 69 11 73



JAI BATZORDEA

Apirilaren 24ean egingo dute hurrengo bilera

Hilean pare bat aldiz biltzen dira festa batzordeko partaideak. Herriko elkarte, erakunde eta talde ezberdinetako lagunak joaten dira bileretara udal ordezkariekin bat. Guztira hogeitaz lagun inguru biltzen dira, eta esan digutenez, bilera irekiak dira, eta parte hartu nahi duen edonor joan daiteke. Bilerak asteazkenetan eta iluntzeko zazpiak aldera izaten dira udaletxean.



Konpartsak arrakasta handia izaten du

Aurtengo Santiago jaiak, uztailaren hogeita lauean hasi eta hogeita hamaikan bukatuko dira. Jai batzordea, egun horietan zein ekitaldi antolatu erabakitzen ari da. Orain arte ekitaldi zerrenda bat egin dute, eta orain ekitaldi horiek zein egunetan eta zein orlutan izango diren zehazten ari dira.

Jesus Urreta kultur zinegotziak esan digunez, zaila da ekitaldi berriak antolatzea. "urtero antzekoak egiten baitira eta herritarrek hortara obitu dira". Hala ere, aipatzeko da ekitaldi berezi bat antolatu dutela uztailaren hogeita zortzirako: Zaireko dantzari talde batek eskainiko duen ikuskizuna, alegia.

Dirua urtean zehar banatu

Zinegotziaren esanetan, jaietarako duten aurrekontua ez dute handitu nahi, eta gainera, urtean zehar egiten diren ekintzetarako gorde nahi dute sobratzen den diru kopurua.

HERRI OLINPIADETAKO EMAITZAK

Bota Zak taldeak irabazi ditu aurtengo olinpiadak

Martxoaren 23an bukatu ziren II. Herri Olinpiadak, eta azken froga gisa, parodia bat egin behar izan zuten lehiakideek. Bota Zak, Dudik Ez eta Pott Inda taldeek, puntuaketa berdina jaso zuten azkenengo frogan. Baina azkenean, Bota Zak taldeak irabazi zuen, ordura arte puntu gehien lortu zuelako.

Azken eguna ondo bukatzeko, kalejiran ibili ziren olinpiadetan parte hartu zuten herritarrek. Txarangaren atzetik ibili ziren herri guztian zehar, eta ondoren Berdura plazan afaldu zuten guztiek. Laurogei lagun inguru bildu ziren afaltzera, baina olinpiadetan parte hartu zuten bost taldek bakarrik egin zituzten parodiak.

Gazteenak irabazle

Bota Zak taldeak, Dudik Ez taldearekin batera egin zuen parodia, eta parodia hau izan zen puntu gehien jaso zuena. Bi taldek puntu kopuru berdina jaso arren, Bota Zak taldea zegoen puntuaketa orokorreko lehenengo postuan. Ondorioz, berak irabazi zituen olinpiadak. Olinpiadetako talde gazteena izan da, eta ekintza guztietan gogoz hartu dute parte. Aipatu beharrekoa da ere Jun Da Bertan taldeak eskaini zuen ikuskizun paregabea. Txaranga gau guztian zehar ibili zen alde batetik bestera.

UDAL ERROLDA BERRITZEKO HIRU PERTSONA BEHAR DIRA Apirilak 13a baino lehen eman behar da izena

Udal errolda berritzeko hiru pertsona kontratatuko ditu Udalak. Interesatuak udal bulegotean eman behar dute izena, eta honako baldintza hauek bete behar dituzte: duela sei hilabetetik hona gutxienez Billabonako bizilaguna izatea; LHI edo antzeko ikaske-

tak eginda edukitzea; hemezortzi urte izatea; eta euskaraz ondo hitz egin eta idaztea. Frogetan euskara ahoz eta idatziz baloratuko da. Era berean, udalerriaren ezagutza baloratuko dute, eta kultura orokorreko galderak egingo dituzte.

LANGABETUENTZAKO IKASTAROAK

Gozogintza ikastaroa egin duten gehienek lortu dute lana

Tolosalde mailan antolatu diren hiru ikastaroak langabezia denbora luzean daudenei zuzenduta daude. INEM erakundeak eta Eusko Jaularitzak antolaturiko ikastaroak dira, eta apirilean edo maiatzean hasiko dira. Ikastaro hauen bitartez, askok lana lortzen dutela esan digute, baina eskualdeko hirurogei pertsonak bakarrik har dezakete bertan parte.



Billabonan egingo da gozogintza ikastaroa

Iturgin instalatzaile agiria lortzeko ikastaro eta azterketa eskaintza egin dute batetik, hogeitamar pertsonentzako: hamar mila pezeta ordaindu beharko ditu ofizioa ezagutu eta lanean ari denak, eta bost mila pezeta berriz, langabezia dagoenak.

Apirilean hasiko da ikastaroa, eta egunero hiru orduko klaseak emango dituzte. Ikastaro motza da, hogeita hamar ordukoa.

Ikastaro horren helburuetako bat, iturgintza alorrean lanean dabilen langileak lanerako beharrezkoa duen

agiria lortzea da. Era berean, titulurik ez baina agiri hau duen edonor hasi daiteke lanean, gehienbat, langile autonomo bezala.

Bestetik, lanbidea ezagutzen ez dutenentzat iturgintza ikastaro berezia ere antolatu dute. Maiatzetik abendura bitartekoa izango da, eta 580 orduko iraupena du. Ikastaro hau egingo duten hamabost ikasleek, hiru hilabeteko praktikak egingo dituzte.

Azkenik, azken urteotan arrakasta handia lortu duen gozogintza ikastaroa hasiko da apirilean. *"Turismoa eta ondorioz ostalaritzaren gorakada dela eta, langile gehiago behar dira egun esparri bonetan"*, esan digute Gizarte Ongizate eta Enplegu batzordeko ordezkariak. Abendura arte iraungo du, eta 580 orduko ikastaroa izango da. Hamabost langabetuk bakarrik egin ahal izango dute ikastaroa.

Baserri bat berritzeko lanak

Belauntzako Udalaren eta INEMen ekimenez, baserri bat berritzeko hogoita lau langabetu hartu nahi dituzte. Hamabi lagunek arotz lana ikasi eta egingo dute; beste hamabiek berriz, igeltsaritza landuko dute. Hogeita bost urtez beharokoak izan behar dute guztiak, eta bi urtetarako hartuko dituzte: lehenengo sei hilabeteetan klase teorikoak jasoko dituzte, eta gairontzekoetan, lanean arituko dira.



ogi berezi eta artesauak etxerainoko zerbitzua

OKINDEGIA, S.L.

OGI ZURI

OGI-GOXO



- TARTAK • IJITO BESOA • PASTELAK
- TEILAK-ZIGARRILOAK
- HOJALDREAK • MAGDALENAK

Kale Nagusia, 26 - Tel. 693294 - BILLABONA



EKO-TOLOSA

FRUITATEGIAK

Kale Nagusia, 3 BILLABONA
Kale Nagusia, 33 ANDOAIN

ITAMAR

Nagusia 28 - T 69 39 31 - BILLABONA

OPARIAK - BITXIAK - MODA

SOLARIUM SERBITZUA

ZURE AZALA PREST UDARAKO

Mimos

HAUR ETA GAZTEENTZAKO MODA
JAIOBERRIARENZAKO
BEHAR DEN GUZTIA

BANATZAILEAK:

- BEBE CONFORT
- JANE • AURRE
- INGLESINA

Kale Nagusia, 29 - BILLABONA

TXINTXUR ASTIALDIKO TALDEA

"Haurren arteko harremanak sendotu nahi ditugu"

Hamabi eta hamahiru urte dituzten hogeita hiru hurrek osatzen dute taldea. Ostiralero biltzen dira iluntzeko zazpietatik zortziak arte Arantzazuko Amaren elizak dituen lokaletan, eta taldeko begiraleek prestatu dizkieten jokoak nahiz ekintzak egiten dituzte. Zortzi begirale dituzte, eta taldeak hiru helburu orokor hauek dituela esan digute: euskara bultzatu, haurren arteko elkar ezagutza erraztu eta kristau fedea landu.

"Apaizaren ideia izan zen taldea sortzea, doktrina bukatu duten hurrek giza eta kristau baloreak lantzen jarraitzeko", esan digu Iker Urruzola begiraleak. Apaizak egun begirale moduan dauden zortzi gazteei bere asmoa azaldu zien. Gazte hauei ideia ona iruditu zitzairen, eta beste herrietako parrokiako taldeetako begiraleen ideiak eta aholkuak jaso zituzten hurrekin lanean hasi aurretik. "Helburuetako bat fedea lantzea bada ere, garrantzi handia ematen diogu haurrak elkar ezagutzeari" esan digu Ikerrek. Honekin batera, euskara bultzatzea eta haur erdaldunen eta euskaldunen arteko harremanak sendotzea ere lortu nahi dute. Hori lortzeko ekintza asko antolatzen dituzte: jokoak, idatziak, irteerak eta antzeko gauza gehiago. Beraz, haurrak ahalik eta modu dibertigarrienean hezitzen saiatzen dira.

Urriaren sortu zen Txintxur astialdiko taldea. Urritik hona ekintza asko egin dituzte, eta ostiraletako ekimenetaz gain, asteburuetan ere egin ohi dituzte irteerak: maiatzean Hernialdera joango dira hiru egunetarako.

Apirilak 21ean Txirrin-Txarran eguna

Gipuzkoako parrokiako taldeekin harremanak sendotzeko, Txirrin-Txarran eguna ospatuko dute aurtengo Tolosan. Apirilaren 21ean izango da, eta taldeetako partaideei dago zuzenduta. Ekitaldi eta joko ezberdin ugari osatutako eguna izaten da. "Tolosaldeko taldeek berriz, Zurrumbilo eguna ospatzen dugu beste egun batean", esan digute Txintxur-eko begiraleek.



Apirilaren 21ean Txirrin-Txarran eguna

Elizak utzitako lokala eta dirua erabiltzen dute ekintzak antolatzeko. Hala ere, dirua behar dutela eta, Udalari eskatu diote dirulaguntza.

Begiraleak gustura daude hilabete hauetan egin duten lanarekin, baina askotan adin horretako hurrekin lan egitea zaila dela esan digute. Bestalde, haurrak taldean gustura daudela adierazi digute.

Ormemendi Kirolak

**AUKERA ZABALA
KIROL ARTIKULUETAN**

JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF. 59 18 06 ANDOAIN

**Ageltseritza
USABIAGA**

Leku - Ona Etxea, 2 - Iharza auzoa
Tel. 69 35 60 - 69 34 35
20150 ZIZURKIL (Gipuzkoa)

Andoain

ARTELATZ: INGURUGIRO HEZIKETA

Gizarte kontzientzia kanpainak, proiektu nagusien artean

1991. urtean sortu zen ARTELATZ ingurugiro heziketarako enpresa. Esparru horretan, eta irakaskuntza arloan batez ere, zegoen hutsuneaz jabetuta ekin zioten proiektuari, ingurugiroarekiko kontzientzia herritarren artean gero eta gehiago zabaltzen ari zela ikusi ondoren. Bost bazkidek osatzen dute aurki kooperatiba izango dena: bi geografok eta hiru biologok. Bost urte lanean aritu ondoren, bide berriak jorratzeko asmoa daukate aurrerantzean: ingurugiro gizarte kontzientzia kanpainetan murgildu nahi dute hemendik aurrera.

Eduardo Arzakekin hitz egin dugu, bost bazkideetako batekin, eta lehenengo eta behin, ingurugiroak, naturak baino esparru zabalagoa hartzen duela argitu nahi izan digu: nekazalguneak, hiriguneak eta naturguneak osatzen dute ingurugiroa. "Ingurugiro heziketa helburutzat hartzen denean -adierazi digu- aldez aurretik ingurugiro arazoren bat dagoela hartu behar dugu kontuan". Arazoa aztertu eta konponbideren bat emateko normalean honako urrats hauek lantzen dituzte bata bestearen jarraian: informazioa, sentsibilazioa, jarrera aldatzea, gaitasuna, kontzientziazioa eta partehartze soziala.

Baita Nafarroan eta Akitanian ere

Artelatz enpresa sortu zuten lehenengo urtean beren zerbitzuak jaso nahiko zituzten erakundeak bilatzen aritu ziren. Lasarteko Udalarekin egin zuten aurrenekoz lan. Geroztik ikastetxei, Diputazioari, Eusko Jaurlaritzari eta beste erakunde batzuei eskaini dizkiete beren zerbitzuak. Gipuzkoan lan egin dute orain arte, batez ere. Hala ere, Nafarroan eta Akitanian ere hainbat eta hainbat lan egin dituzte.

Eskaintzen dituzten zerbitzuen artean, honako hauek aipatu dizkigute: ikastetxetan ikasleei zuzendutako klase teorikoak, tailerrak eta bisitaldiak, irakasle eta gurasoekin ere gaiak landuz: hezitzaileentzako ikastaroak; egonaldiak ingurugiro egoitzetan: Bidarrai, Urbasa, Zugaztieta, Beizama, Zuloaga Txiki eta abar. Animazio sozio-kultural arloan ere egiten dituzte eskaintzak: ikasbidaiak eta udalekuak, esate baterako. Horrezaz gain, material didaktikoa prestatzen dute, eta behar duten erakundeetara ahol-



Eduardo Arzak eta Elisabete Castillo

kularitza zerbitzua eskaintzen diete. Orain arte, bezeroak izan dira Artelatzerara erantzun bila jo dutenak, eta era horretan bide berriak lantzerara behartuta egon dira bost bazkideak. Aurrerantzean, ekimena beraiena ere izatea nahi dute, eskaintza berriak eginez; gizarte kontzientzia kanpainak landu nahi dituzte, batez ere.

Oro har, herritarren kontzientzia ekologikoaz galdetu diogu Eduardo Arzaki: "Europar badaude berrialde jakin batzuk nabikoa aurreratuak: Espainian, Katalunian izan ezik, beste lurraldeetan antzera gabiltza; hala ere Gipuzkoan, egin diren azterketen arabera, kontzientzia maila altua dagoela konturatu gara".

Orain dela bost urte enpresa sortu zutenean, Urnietan ireki zuten Artelatzeke bulegoa, gaur egun Andoainen dauke, Kariika auzoan.

TINTATEGIA GARBITOKIA

GARBIKETAK LEHORREAN ETA BUSTIAN ERA GUZTIETAKO ARROPAK, MANTELAK, GORTINAK, ALFONBRAK...

Arate kalea 3 ☎ 59 39 79 ANDOAIN

UNIBERTSITATERA

Gero eta ikasle gehiago joaten dira autobusez

*Orain dela urte batzuk bezainbeste ikasle-
lek aukeratzen dituzte unibertsitateko
ikasketak, lanbide ikasketak aukeratzen
dituztenekin alderatuz, adibidez. Institu-
tutik irten ondoren, normalean, gazteek
ez dute beste aukerarik izaten, edota ez
zaie besterik bururatzen. Dena den, garai
batean unibertsitateko ikasketak egiteko
Bilbo, Iruñea edota Gasteizeko campus-ak*

*aukeratzen zituzten gipuzkoarrek, bertara
joan ohi ziren ikasketak iraun bitartean;
gaur egun, gero eta gehiago dira egune-
roko joan-etorria egin ohi dutenak, arra-
zoi asko direla medio. Unibertsitateko
ikasleen bizimodua ezagutzeko Larraitz
Goenaga eta Nerea Lizarraga zizurkilda-
rrena, eta Liv Kinlal eta Aitziber Sarasola
andoaindarrarengana jo dugu.*

Larraitz eta Nerea enpresa-
ritza ikasketak egiten ari
dira Ibaetako *campus* be-
rrian. Larraitzek tren eta
autobusa erabiltzen ditu,
eta Nerea autobusez joaten da ber-
taraino: "Gure ametsa koadrila osoa
Bilbora etxebizitza batera joatea
zen, baina Donostia bain gertu
egonda...". Liv kazetaritza ikasketak
egiten ari da eta Leioako *campus*-
era joaten da. Urrutiago egon arren,
berak ere egunero hartzen du auto-
busa: "Bilbora bizitzera joatea
pentsatu nuen, baina autobusa
bazegoela eta, egokiena froga egi-
tea iruditu zitzaidan". Bere auke-
raren abantailaz galdetu diogu, eta
"etxera joandakoan, dena eginda
daukazu", erantzun digu.

Aitziber Sarasola biologia ikaske-
tak egiten ari da, Leioan baita ere.
Hirugarren urtea du, eta ikasturte
hasieran Leioan bertan beste ikasle
nafar batzuekin etxebizitza aloka-
tzea pentsatu zuen. Bilbo erditik bai-
no gertuago dagoelako aukeratu
zuen Leioa. Egunkariko iragarki ba-
ten bitartez ezagutu ditu lagun be-
rriak, eta orain arte behintzat, oso
gustura dago: "Elkarbizitzak ez
dauka lehenago ezagutzearekin
zerikusirik; aldeaz aurretik ezagutuz
gero, gauza negatiboak erraz
kanpora daitezke; ezagun berria-
ren alde onak eta txarrak aldi be-
rean ezagutu ohi dira". Erresiden-
tziaren batera joateko aukera ere
beti izaten da, baina ez dute bizimo-
du hori gogoko: "Ez daukazu in-
dependentziarik, asko kontrolatzen



Ibaetako campus-a

*dute, eta gela bakarra izatea oso
garestia da", azaldu digute.*

Etxemina batzuetan; askatasun sentipena beste batzuetan

Hasieran nahikoa gogorra egiten
omen zaie batzuei etxetik urrun
egotea. Beste batzuek gurasoen
etxean ez daukaten askatasuna lor-
tzen dute. Hala ere, esperientzia
aberasgarria iruditzen zaie guztiei:
"Nork bere burua hobeto ezagutzen
du, eta elkarbizitzak besteak erres-

*petatzen erakusten du". Inoiz egin
gabeko etxekolanetan ere trebatzen
da: otorduak, garbiketak, arropa li-
satzen eta abar.*

Elkarbizitza

Etxeko bizimoduari dagokionez,
orain arte zailtasun handirik gabe
moldatu dira: "Bazkaria nork berea
prestatzen du, ordutegi ezberdinak
dauzkagu eta. Afaltzeko elkartzen
gara, baina gustu ezberdinak
dauzkagu, eta nork berea prestat-
zea erabaki genuen". Etxekolanak
lau alorretan banatuta dauzkate, eta
astero bat arduratzen da dagokion
lanaz: "Noizean behin etxeko gar-
biketa orokorra egiten dugu denok
batera", zehaztu digute. Bestalde,
nork bere gela dauka: "Garrantzit-
sua da espazio propioa edukitzea.

Merezi du, nahiz eta alokairua garestixeago izan”.

Ikasleen etxebizitzetan ikasteko egon ohi den giroaz galdetu eta Aitziberrek zera kontatu digu: *“Ikasteko gogoz joan gara bostok unibertsitatera eta giro aproposa dago horretarako; elkar errespetatzen dugu”*. Parranda asko ez omen dute egiten, nahiz eta ostegun edo ostiral gau batzuk ondo aprobe txatu.

Euskal Herriko Unibertsitatea

“Lehen klasera joan nahi ez genuela ibiltzen ginen, eta orain berriz, ordu erdi lehenago joan behar tokia bartzeko”, horixe da zizurkildarrek EHUari buruz galdetutakoan eman diguten lehenengo erantzuna. Enpresaritza ikasleak baino okerrago daudenak ba omen dira, baina oraindik ere ikasgeletan masifikazioa handia da. Bestalde, giroa ez da espero zutena, ikasgelan horrenbeste jende artean, lagunak egitea ez omen da erraza, are gutxiago irakaslearekin harremanen bat izatea: *“Galderak egitera ere ez zara ausartzen”*. Hala ere, euskarako ikasgeletan gazteleraizkoetan baino giro hobea dagoela zehaztu digute.

Kazetaritza ikasgelak beti erdi hutsik

Liveri EHUari buruz galdetu diogunean zera erantzun digu: *“Leioan urteak joan urteak etorri beti daude arazoak, kazetaritzan batez ere, eta badirudi inoiz ez direla konponduko”*. Leioan kazetaritzako bost irakasle kaleratuen auziak ikasgeletan eta baita ikasleen artean sortzen ari den arazoak kontatu dizkiugu. Kazetaritzan berriz, ikasgelak azterketa garaian izan ezik, inoiz ez daude beteta, nahiz eta ikasle matrikulatu kopurua ikasgela betetzeko adina izan. *“Irakasle batzuekin ez du merezi”*, erantzun digu Leioara apenas joaten den kazetaritza ikasle batek. Liv herriz, egunero joaten da klaseetara, eta nahikoa gustura dago: *“Irakasle onak tokatuz gero, ongi; beste batzuekin ordain-*



Liv Kinlal andoaindarra

dutako matrikularen truke beste zerbait merezi dutzula iruditzen zaizu”.

“Euskarazko ikasketak oso gaizki daude -erantzun digute Leioako bizilagun berriak-, gazteleraizko klaseetan ikasleak soberan eta gutxi faltan”. Bestalde, irakasleak, oro har, ez zaizkie onegiak iruditzen. Unibertsitateko giroari dagokionez, astea bertan igarotzen dutenek, giro eta lagunarte hobea aurkitu dutela ematen du. Hala ere, fakultatean ekintza kultural gutxi daudela eta euskaren aldeko taldeen ekimenak oztopatu eta zaildu egiten direla diote: *“Euskara ez da batere bultzatzen; gure taldeak baztertua dau-*

de, ordutegi txarrenak dauzkagu eta materiala eskasa da”.

Dirua izan ohi da askotan pribatura ez joateko arrazoia

Unibertsitate publikora joan beharrean, pribatura joatea ez al zaien bururatu galdetu diegu. Zizurkildarrek pentsatu arren, diruagatik egin dute atzera, nahiz eta praktikak egiteko edota atzerria joateko aukera gehiago izan. Biak ari dira ikasten eta lanean aldi berean. *“ikasle bizi-modua bestela ere nahikoa garestia da eta”*. Livek orain berriro hasi beharko balu, behar bada, Iruñeara joateko aukera pentsatuko luke. *“autobidea daukagunetik bidaiari nahikoa azkar egiten da”*.

Ikasketak

Larraitzek eta Nereak enpresaritzan ikasketetan praktikak falta direla uste dute, eta etorkizunari ez diote oso itxaropentsu begiratzen. Liv ez da gehiegi kexatzen, eta ikasketak euskaraz egin dituzten kazetariek gazteleraiz egin dutenak baino aukera gehiago izango dituztela pentsatzen du. Aitziber andoaindarrak eta bere lagunak ez zituzten etorkizuneko lanpostuari begira ikasketak aukeratu. Gustatzen zaiena ari dira egiten, eta ilusioz, gainera: geologia, arte ederrak eta medikuntza. ■



Larraitz Goenaga eta Nerea Lizarraga zizurkildarrak

MARTIN UGALDE ANDOANDARRARI ELKARRIZKETA

**"Pedrotxo", bere azken nobela,
apirilaren 17an aurkeztuko du
Andoainen**



Martin Ugalde Orradre Andoainen jaio zen 1921eko azaroaren 11an. 1936ko gerrak erabat seinalatuta utzi zuen bere bizitza: aita galdu-ta, amarekin erbestea ezagutu zuen. Venezuelan familia osoa elkartu ondoren, andoaindarrak bizimodu berriari ekin zion, askatasunean, baina Euskal Herria beti gogoan zuela. Erbestean EAJko hainbat erakundeko buru zela, kazetaritzan eta literaturgintzan murgildu zen, euskaraz nahiz gaztele-raz hainbat eta hainbat ipuin eta artikulua argitaratuz. 1967an itzuli zen Hondarribira joan-etorri bat baino gehiago egin ondoren. Martin Ugalderekin bizimoduak antifrankismoa, euskaltzale-tasuna, ikasteko grina eta historia eta literatur zaletasuna dute ezaugarri. ELKAR argitaletxean argitaratutako "Pedrotxo", euskarazko bigarren nobela honetan, Martin Ugalderekin bizitzaren aztarna guzti horiek antze-man daitezke. Haur baten ikuspegi xume eta apalak gidatuta, orain dela 60 urteko Andoainera, edota Euskal Herriko edozein herritara, eramango gaitu.

Ai: Zergatik idatzi duzu "Pedrotxo"?

M.U: Aspal-didanik neukan literaturaren bitartez nire berriaren historia-ren interpreta-zioa egiteko gogoia. Historia bi erata egin daiteke: zientifikoki edota intuizioz eta literaturaren bitartez. Euskal Herriari buruzko historia liburua idatzi nuen: "Síntesis de la historia del País Vasco". Oraingo bonetan literaturaren bitartez jor-ratu nahi izan dut gaia. Liburua argazki bat bezala eraman izan dut beti gogoan eta bibotzean.

Ai: Nor da Pedroxo? Martin, akaso?

M.U: Ez da: baina izan zitekeen. Pedrotxok eta biok, bala ere, baldaukagu sentimendu amankomuna: berak, nik bezala, gerran aita galdu izanaren tristuraz bizi izan gara luzaro. Nobela bonen bitartez herri honek sufritu zuen tragedia baur errugabe eta apal baten ikuspegi xumetik erakutsi nahi izan dut.

Ai: Zalantzarik gabe, nobelan agertzen diren lekuak eta pertsonaia asko andoaindarrak dira?


M.U: Hezur-baragizko andoaindar batzuen erreferentziak hartu ditut pertsonaia osatzeko: Joxe Arretxe, Azelaingo señoritoa eta abar. Baina irakurleak, eta batez ere andoaindarrak, beti kontuan hartu behar du "Pedrotxo" nobela bat dela, eta nik, egileak,

beste edozein idazlek bezala, asma-tu egin dudala. Horregatik gauza asko ez dira zehatz-mehatzak. Bestalde, nobelan deskribatzen diren lekuak ikusita -ospitalea, kaleak, dendak eta abar- argi dago Andoain dela, baina aldi berean garrai bereko Euskal Herriko edozein herri ezin daiteke.

"Eskoletan oraindik ere Espainiako historia besterik ez da erakusten"

Ai: "Historia ezagutu behar da pentsatzeko eta erabaki zuzenak hartzeko", zure hitzak dira.

M.U: Bai, eta herri bonetan historia-ren ezagupenari dagokionez, butsune handia dago. Eskoletan oraindik ere Espainiako historia besterik ez da erakusten; oraindik ez dira basi euskaldunek idatzitako Euskal Herriko historia irakasten. Eta jakina, ezagutzen ez dena, ez da existitzen. Eta gaurko egoera nola azter daiteke, nola bar daitezke erabaki zuzenak historia eza-gutzen ez bada?



Bere memorien azterketa egiten ari da J.M. Torrealdai

Ai: Gure agintariei buruz ari al zara hitz egiten?

M.U: Egia esan, ez nago oso gustura gaur egun egiten den politikarekin. Erbestetik itzuli nintzenean politika arloan gauzak egiteko asmoz etorri nintzen, lehen ere Venezuelan EAjko erakundeetan erantzukizunak banituelako. Baina gaur egungo politikak ez nau batera erakartzen. Antifrankismoak eraman ninduen politikan murgiltzera; ezinbestekoa zen. Baina gaur egun ez zaizkit gauzak nola egiten diren gustatzen. Erabaki asko eta asko ez dira arrazoia erabiliz hartzen.

“Apaiz euskaldunek herri honetan egin duten lana goraiatzekoa da”

Ai: Beti defendatu izan duzu euskal apaiz askok kultura arloan egin duten lana?

M.U: Nola ez dut bada, defendatuko. Nik neuk, haurra nintzela, hiru urtez baino ez nintzen eskolara joan. Eta ikasitakoa La Salleko apaizek erakutsi zidaten. Garai hartan beraien ziren kulturadun gizon bakarrak. Eta egin zu-

tena onartu egin behar da, eta egiteko erantzukizuna izan, eta egin ez zutena kritikatu. Eta herri honetan badago apaizek egindako guztia kritikatzeko obitura xelebrea.

Ai: Herri atzeratua al gara, horri dagokionez?

M.U: Euskaldunok geure historia den bezala onartu behar dugu: gure bizkuntza beti egon da zapalduta, herri txikia gara, eta unibertsitateak adibidez, urte gutxi batzuk baino ez dauzka. Beraz, arlo askotan beste herri batzuekin alderatuz, herri atzeratua garela esan daiteke.

Ai: Gure herriaren historia-ri eta kulturari ekarpen handia egin diozu, ziur aski?

M.U: Nik herri honetako hiru belaunaldi ezagutu ditut. Izan diren lehenakari guztiakin izan dut harremana, politikari gebientsuenak ezagutu ditut. Horrek biburtzen nau, beharbada, erreferentzia puntu garrantzitsu. Hori dela eta, Joan Mari Torrealdai ikerlaria nire memorien bitartez ikerketa soziologiko garrantzitsua egiten ari da. Berrogeita hamar urtez idatzi izan dut, beraz, nire liburuak, nire gutunak, nire idatziak garrantzitsuak izan daitezke herri honetan historiaren transmisioa nola egin den aztertzeko, eta batez ere, ondorengo belaunaldiei transmisio hori ziurtatzeko.


“Estilo arina eta ulerterraza bilatu izan dut beti literaturan”

Ai: Literaturara itzuliz; poesiak ez al zaitu erakartzen?

M.U: Ez asko. Ez naiz poesia egiten gustura sentitzen. Errimak eta erritmoak bilatuz idatzi behar izatea artifiziala egiten zait. Horrek ez du esan nahi nire prosan poesia ez dagoenik. Nik estilo arina eta ulerterraza bilatzen dut, eta hitz zehatzak dauzkat oinarri. Hitz bat edo beste aukeratu aurretik, hitz horrek irakurlearegan erango duen sentimenduan pentsatzen dut.

Ai: Andoain aipatuz gero, zer etortzen zaizu burura?

M.U: Buruan daukadan argazkian eliza, Zumea nire kalea, garai bateko Ondartza ingurua, Kalletxiki eta beste txoko batzuk etortzen zaizkit gogora. Hala ere, aitortu behar dut Andoainera joaten naizen bakoitzean, nabikoa berrituta geratzen naizela; gero eta jende gutxiago ezagutzen dut. Kanpoko jendez beteta dagoela inditzen zait. ■



Larraul

GIPUZKOAKO XVI. MENDEKO GRISALLA BAKARRA

Margoa estaltzen zuen erretaula hiru metro aurreratuko dute

1540. urteko grisalla edo margoa duela bi urte agertu zen Larraulgo San Esteban elizan. Erretaula konpontzeko lanak egiten hasi zirenean agertu zen margoa, eta bi urte hauetan erretaula nahiz margoa konpontzeko lanak egin dituzte. Biak konpondu ondoren, erretaula lehengo lekuan jarri ala mar-

goa ikusteko moduan nola jarri erabaki behar zuten. Azkenean, margoa ikusteko erretaula hiru metro aurreratuko dute. Honela, larrauldarrek ohiko erretaularen aurrean hartuko dute meza, eta margo baliotsua berriz, erretaularen atzean geldituko den pasilotik ikusi ahal izango da.



Duela bi urte egin zuten aurkikuntza

XVI. mendeko margoa, elizaren absidearen erdian dago, eta Berpizkunde garaiko irudiak ditu. Aingeruak, Jeremias eta Isaias apostoluak eta San Juanen eta Ama Birjinaren kalbarioa dira agertzen diren irudietako batzuk. Hamar metroko luzera eta bost metroko zabalera du, eta garai batean erdian zituen gurutzeta eta irudi batzuk falta zazkio. Era honetako Gipuzkoako margo bakarra da, eta Euskal Herrian ere, ez da antzeko margorik agertu.

Margoa nahiko egoera txarrean aurkitu zuten: hezetasunak asko kaltetu zuen, eta zikinkeriaz eta hautsez estalita zegoen. Margoa ukituz gero, zatiak erortzen ziren. Javier Chillidaren gidaritzapean

konpondu dute margoa, eta Eudal Guillamet-ek, artelan konponketa askotan parte hartu duen adituak, aholkuak eman ditu. Lehenik eta behin, margoa dagoen pareta poliki-poliki garbitu dute. Ondoren, gasak eta erretsin sintetikoak erabiliz margoa estali dute. Behin hori bukatuta, karea sartu dute paretatik aske zegoen margoa berriro ere paretari eransteko, eta oro har, margoa indartzeko. Bukatzeko, guztia ondo garbitu eta akuarelaz baliaturik margoa zertxobait konpondu dute. Hala ere, Javier Chillidak esan digunez, ahalik eta gutxien margotu dute, *grisalla*-k bere originaltasuna gal ez dezan. Bost milioi pezeta kostatu da margoa berritzea.

Erabaki bakarra, iritzi ugari

Aurreko hilean erabaki zuten herritarrek eta agintariak egindako bileran margoa agerian uztea. Horretarako, erretaula hiru metro aurreratuko dute, eta bere atzetik margoa ikusi ahal izango da. Erabakia hartzeko orduan, herritarrek meza beren erretaularen aurrean hartu nahi dutela kontutan hartu da. Sei edo zazpi milioi pezeta kostatuko da erretaula aurreratu eta egin behar diren lanak egitea. Diputazioak ordainduko du gehiena, baina kostu guztiak eta lan guztiak erabakitzeke daude. Lanak lehenbailehen hasiko dituzte, eta datorren urteko urrirako amaitzea pentsatzen dute. Hemendik urrira bitartean erretaula aurrerago jarri, aldea aurreratu, bertara igotzeko eskailera berriak egin, eta finean, meza emateko lekua hiru metro aurrerago jarri behar dute. Horrezaz gain, margoa ikusteko erretaularen atzeko pasiloa egokitu, argiak jarri, eta beste zenbait lan gehiago egin behar dituzte.

“Hartu zitekeen erabakirik egokiena erretaula aurreratzea da”

Koldo Apeztegi, Gipuzkoako elizbarrutiko ordezkaria ados dago hartu den erabakiarekin: *“Eliza meza emateko modu egokian geldituko da horrela, herritarrek nahi duten bezala”*. Javier Chillidak herriz, margoaren osotasuna ez dela ondo ikusiko dio. Chillida erretaula elizaren albo batean jartzearen alde eta *grisalla* agerian uztearen alde zegoen. Koruko Aizarna kultura diputatuak esan digunez berriz, margoa ikustea bezain garantzitsua da herritarrek meza nahi duten bezala jasotzea: *“Margoa balio handikoa da, eta bori ondo zaindu behar dugu, baina larrauldarrek jakingo dute eliza nola antolatu”*. Herritarrek argi eta garbi adierazi dute meza ez dutela paretan ilun eta zahar baten aurrean jaso nahi.

Larrauldarrek beren erretaula eduki nahi dute elizan eta ez albo batean; behar duen lekuan baizik. Herriko apaizak, Jose Maria Albisuk, erabakia erdipurdikoa dela esan digu, eta erretaula lehengo lekuan behar zuela gaineratu digu. Antton Amonarriz alkateak berriz, hartu zitekeen erabaki bakarra dela dio: *“Margoa ikusteko moduan jartzeko eta meza*



Erretaula metro batzuk aurreratuko dute

eta eliza jendeak nahi duen moduan antolatzeke era bakarra da”. Bestalde, gustora dago Diputazioak izan duen jarrera dela eta. Gainera, lan hauen kostua ordainduko du.

Diru asko balio dute egin diren lanak eta egingo direnak

Egungo erretaula

Erretaula konpontzeko lanetan hamasei milioi jarri dituzte: %70a Diputazioak eta %30a elizbarrutiak. Larraulgo Udalak ere, bi milioi pezeta jarri ditu. Albalalde enpresak berri du XVII. mendeko erretaula, XIX. mende hasieran polikromatua. Erretaula oso egoera txarrean zegoela eta, konponketa lanak egin dituzte orain. Egungo erretaula berriztatua, polikromatu gabeko kolore biziak eta margoak ditu.

FRAISOROKO ZUHAITZ HANDIA. 1956. ZIZURKIL.



Zutik: Marilolo Lizarraga.

Eserita ezkerretik eskuinera: Agustin Etxebes-te, Maritere Lizarraga, Eugenio Lizarraga, Maria Isabel Castilla, Ana Maria Perez-Izagirre eta Mariasun Lizarraga.

Batis Lizarragak argitu dizkigu argazkiko haurren izen-abizenak, erdiak bere anai-arrebak baitira.

Argazkia berriz, aurtengo urtarrilean hil den **Pilar Sasianbarrena**rena da, eta hurreman estua zuen argazkian ageri diren haurrekin.

Zizurkilgo haurrak, askotan joaten ziren Fraiso-

roko zuhaitz handia delakoaren magalera merientatzera edota jolastera. Argazkia bertan ateratakoa da, eta Pilar Sasianbarrenak atera zuen 1956. urteko irailean. Esan digutenez, Pilar askotan ibiltzen zen Lizarraga familiko haurrekin eta baita plaza inguruan bizi zirenekin ere. Urte haictan jende gutxi bizi zen herrian eta guztiak ezagutzen zuten elkar. Hamar urte ditu argazkiko haur zaharrenak, eta urtebete baino gutxiago berriz txikiak. Lehen, guztiak batera ibiltzen ziren, eta eskolan ere gela berean ikasten zuten hiru urteko haurrek zein hamalau urtekoek. Beste garai batzuk ziren.



OPTIKO - OPTOMETRISTAK

EGUZKITAKO
BETAURREKOTAN
AUKERA ZABALA

Kalenagusia 9 -20140 ANDOAIN
☎ 59 18 17

MIRARI
ILEAPAINDEGIA


ELIZBILDE PLAZA, 2
72990162

ANDOAIN

ARRATE

T A B E R N A
ARRATE PLAZA - 4 BEHEA
ANDOAIN

- PINTXOAK
- OGITARTEKOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KAZOLATXUAK



Zabala
Ordukari Bitxitegia

Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN
Gudari enparantza - ☎ 33 23 41 - HERNANI

XEBE DIEZ

Eguraldi gizona ALKIZA



- Nola ikasten da eguraldia iragartzen?

- Telebistan basi nintzenean ez nekien ezertxo ere, eta ez neukan inongo laguntzarik. Hala ere, betidanik gustatu izan zait mundu hori, eta berebala basi nintzen liburuak erosten eta abal nuen bezala ikasten, beste meteorologoi Madrilerara eta Santedererara deituz eta abar. Nire kabuz ikasi dut.

- Zein tresna erabiltzen dituzu?

- Mapa pilo bat iristen zaizkit egunean zehar etxera: Herri Irratian goizeko 8.30etako saiota bitatu orduko egun bereko mapa iristen zait Ingalaterratik, 9.00etan beste bat jasotzen dut, 11.30etan burrengo, 17.30etan beste bat, eta gantean beste bi edo hiru, leku ezberdinetakoak: Alemania, Errusia eta abar. Azken hauek lau edo bost egun barrukoak izan obi dira. Horiek, jakina, ez dira oso fidagarriak izaten; gauza handirik ezin daiteke esan. Mapez gain, telebistako meteorosataren argazkiak ikusten ditut egunean zehar gertatuko dena antzemateko.

- Zaila al da?

- Bai, zaila da. Ni ez naiz meteorologoa, eta Euskaldi osoan ez dago bat ere. Hala ere, eguraldia iragartzeko ez da beharrezkoa. Gaur egun meteorologoaren interpretazioak baino gehiago, ordenagailuek egindako mapak erabiltzen dira.

- Los refranes en el tiempo de Seve Díez liburua en gilea zara.

- Bostebun errefracu inguru bildu ditut, eta gainera meteorosatare nire eguraldi saiota jarri izan dizkidan bostebunen bat izenlagun aipatzen ditut. Horrezaz gain saiota zehar esan ditudan nik asmatutako txorakeria guztiak idatzi ditut: asmatutako errefracuak, esatera zaharrak eta abar.

- Telebistan eguraldia esaten basi zinen, eta errefracuak esaten bukatu zenuen.

- Hasieran saiota konturatu gabe esaten basi nintzen, beste intentziorik gabe, eta gero konturatu nintzen erabil nitzakeela, jendeari gustatzen zitzaizkion, eta erabiltzen jarraitu nuen. Eta azkenean, nik nabi izan gabe, pertsonaia bat sortu nuen.


- Nola ikasi dituzu hainbeste?

- Beti gustatu izan zaizkit bitz jokoak, errimak eta abar.

- Zer iragarpen egin diezagukezu apirilera?

- Nik espero dut apirila, apiril bezala portatzea: egunen batean kazkabarra, izotz pixka bat, euria... baina hala ere tenperaturak gora egingo du poliki-poliki.

PERTSONAIA EZKUTUA



Gure pertsonaia ezkutu berriak badauka aurrekoarekin parekotasunen bat edo beste. Ez dugu uste oraingo honetan ere asmatzea zaila gertatuko zaizuenik. Horregatik, aurrekoan bezainbeste gutun jasotzea espero dugu.

Andoaingo Txoko erretegiak, bi lagunentzako bazkaria edo afaria eskaini dugu sari gisa. Beraz, animatu, eta zorte on!

Gutunak honako helbidera bidal itzazue, edota bestela utzi zuen mezua erantzungailuan. Tlf: 30 07 32

AIURRI Dr. Huizi kalea 15. behea.
20140 Andoain.



Erreserba telefonoa: 59 29 57

• Eguneko menua • Bazkari eta afariak kartara
• Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak...

LEHIAKETA

BILLABONA

Bertso eta ipuin-sariketa

Euskara-Hezkuntza batzordeak antolatu du herriko erdi-ziklo eta goi-zikloko ikasleentzat lehiaketa. Gaia librea da. Goi zikloko lanei dagokienez, ipuina aukeratzan badute, bi orrialdekoa izango da gutxienez, eta lau gelinez, eta bertsoa bada, lau estrofa gutxienez, eta sei gehienez. Lanak ikastetxeetan edota udaletxean aurkeztuko dira hilaren 2-ia baino lehen.

ANTZERKIA

ZIZURKIL

Apirilak 26: Bederen 1 taldeak aurkeztuta, "Zu (t) gabe" antzezlanak Kultur Etxean 22.30etan

MENDI IRTEERAK

ANDOAIN

Apirilak 21: Euskalduna mendigoizale taldeak antolatuta. Bidasoa arroan zehar; 4. ibilaldia: Auza, Berdariz, Artesiaga.

BILLABONA

Apirilak 21: Aizkardi mendi taldeak antolatuta, Artzamendira ibilaldia (926m.)

HITZALDIAK

ADUNA

Apirilak 17: Bularretako minbi-ziaren prebentzioa. Hizlaria: Lurdes Ariziturri. Kultur aretoan 16.30etan.

BESTE

ADUNA

Apirilak 16: Zinema gaztetxoentzat kultur aretoan 18.30etan.

Apirilak 20: Kantaldia kultur aretoan 23.00etan.

DEIAK

EGONALDIAK FAMILIA EUSKALDUNETAN

Etxean ikasleren bat hartu nahi duen familiak 4 kidekoa izan beharko du, gutxienez, eta %70tik gorako euskaldun-kopurua duten udalerrietan bizi. Egonaldiak uzaila eta iraila bitartean egingo dira, eta familia bakoitzak gehienez ere ikasle bat hartu ahal izango du hilabete bakoitzeko. Familiak ordainetan 70.000 pezeta jasoko

ditu etxean hartzen duen ikaslearengatik. Informazioa gehiago nahi izanez gero, udaletxera nahiz HABEko bulegoetara jo. Epea hilaren 27ra arte dago irekita.

LARRAMENDI
BAZKUNA

Bilerak

Billabona: apirilak 15ean euskaltegia 20.30etan.

Asteasu: apirilak 16ean Kultur Etxean 21.30etan.

ONDARRETA-LEITZARAN IKASTETXE PUBLIKOAK martxoaren 15eko AIURRI aldizkarian azalduko EHEen artikuluari erantzuna emanez, honako puntuok zehaztu nahiko lituzke:

1- Ikastetxeak ez daki EHE taldeak gure herrian Eskola Mapak izango duen eraginaren azterketa egiteko datuak nondik ateratu dituen, "Euskal irakaskuntzaren aldeko apustua ez dela inondik inora Eskola Mapan agertzen" baieztatzen.

2- Hausnarketa hutsean oinarrituta oso zaila da kritika sendoa egitea.

3- Eskola Mapak zerbait egiten badu, hizkuntz ereduak zehaztea da, eta horren berririk nahiko balute, Eusko Jaurlaritzako argitalpenetan zehazki azaltzen da.

4- A ereduari dagokionez, OHOn gelditzen den azkeneko taldeari buruz, Ikastetxeak bere garaian guraso guztiekin banan-banan hitzegin zuen euskal eredura bideratzeko asmoz, talde honetan gelditzen direnen ezetza jaso zuelarik. Hori da, hain zuzen ere, talde txikia izatearen arrazoia bakarra. Honekin batera, eta argibide modura, jakin ezazue ez aurreko eta ez ondorengo mailetan A eredurik ez dagoela.


5- Puntu honi jarraiki, zera erantsi nahi luke: Eskola Publikoa hezkuntza eta irakaskuntza alorrean gizartearen eskaerari erantzuteko dagoela; honako hau dela betekizunik garrantzitsuenak. Honetan bereizten da, hain zuzen ere, beste irakaskuntza eta hezkuntza eskaintzetaz.


6- Datorren ikasturterako erreforman DBHko Lehen Zikloa jarriko da indarrean bere osotasunean, eta Eskola Mapa egiteko garaian, Oliveri jaunak Bigarren Hezkuntzarako bere ereduak eskaini zituen. Institutuaren eskaeren aurka azalduz. Honek esan nahi du, eta herriko Kultur Etxean publikoki azaldu zen, D ereduko eskaera nahikoa balitz, Institutuak gogo handiz ere Hezkuntza Ordezkaritzari berarizko eskaera luzatuko liokeela.

7- Bestalde, datuen arabera, begibistakoa da Haur Hezkuntzan D ereduak izan duen igoera nabarmena.

Azkenik, zera jakinarazi nahi luke: EHEk dituen "egitismo eta erronka berriei aurre egiteko" ez duela bide egokia aukeratu, eta era berean, Ikastetxea euskalduna eta publikoa izanik, amankomuneko helburuetarako behar hainbatteko laguntza eskaintzen diola.

ANDOAINGO IKASTETXE PUBLIKOAK





kutxa fundazioa

fundación kutxa

- gipuzkoa donostia kutzaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

Joxe Ramon
TABERNA

PINTXO EDERRAK !!

Kale Nagusia, 16 - ANDOAIN



ALOTZ
IZOZKINAK

Kaleberria, 9 - ☎ 59 07 06
ANDOAIN



AUTOEN MEKANIKA OROKORRA
ZABALAGA TAILERRAK

Ama Kandida Etorbidea. DENAC Poligonoa, 203. Pabeloia
Telefonoa 30 01 69 ANDOAIN



TXERRIKIEN
BANATZAILE
ETA
EKOIZLEA

ENPRESEN ZENTRUA

Ama Kandida z/g - 307.Moduloa - ☎ 59 29 23
ANDOAIN

FRANCISCO
MENDIKUTE
HARATEGIA




KaleTxiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN

BENITO

HARATEGIA
URDAITEGIA

Kale Nagusia, 22 ☎ 69 11 49
Arroa Kalea, 4 ☎ 69 13 50

BILLABONA



MENDI
AUTOESKOLA

Agustin Leitza, 11 - ☎ 300604
20140 ANDOAIN

AURRERA
TABERNA

Girorik ederrena gazteriarentzat!!
ZIZURKIL



Kaleberria, 9 - TELF. 59 35 49
ANDOAIN



Nagusia, 37
Tlf. 69 27 63
Fax 69 27 74
20150 BILLABONA

AHOLKULARITZA
ARTEZKARITZA


IRAOLA

ENPRESEN AHOLKULARITZA:

*FISKALA, DIRUKONTUENA,
JURIDIKOA, LABORALA, ASEGURU
OROKORRAK*

ERRENTA AITORPENAK

AHOLKULARITZA ARTEZKARITZA



**300 BAZKIDE
BEHAR DITUGU**

Larramendi Kultur Bazkuneko bazkide izan nahi baduzu, bete ezazu, mesedez, behean datorren eskaera-orria eta bidali edo eraman egoitza orokorrera (Dr. Huizi kalea, 15-1). Bazkide den ezagunik baduzu, nahi izanda, hari emaiozu, eta berak helaraziko digu.

NIK ERE BAZKIDE IZAN NAHI DUT

DEITURAK..... IZENA.....
HELBIDEA..... HERRIA..... POSTA KODEA.....
☎..... JAIOTERRIA..... JAIOTEGUNA.....
PROBINTZIA..... N.A. zkia:.....
BANKU EDO AURREZKI KUTXA.....
KONTU KORRENTEAREN ZENBAKIA(20 digito).....

ZEIN URTEKO KUOTA ORDAINDU NAHI DUZU?

ARRUNTA (7.500) — FAMILIARRA (10.500) — BORONDATEZKOA (•)

ZENBAT TXANDATAN ORDAINDU NAHI DUZU?

TXANDA BAKARREAN — BI TXANDATAN

(•) Borondatezko kuotaren kopurua norberak aukeratu behar du. Kuota arruntatik gorakoa izan liteke, edo, arrunta ordaintzeko ahalmenik ez dutenentzat 7.000, pezetatik beherako edozein kopuru.